



Sustrai Erakuntza Fundazioaren prentsa oharra

## **Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren lanak legez kanpoko egoeran geratu dira**

Ikuspuntu arrazional batetik abiatutik, Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren (AHT) ibilbidearen lanek etete deia jaso dute. **Madrilgo Justizia Epaitegi Gorenak Sustrai Erakuntza Fundazioak ezarritako helegite baten gaineko epaia eman du, Ingurumen Eraginen Aitorpenak (IEA) iraungitzat eta indargabetzat aitortuz.**

Jakina denez, Nafarroako AHTa Castejón eta Iruñerria arteko tramu batera mugatua dago jada, gainontzeko bi tramuen ordeztuak. Bere osotasunean arrazoi askorengatik zalantzan jarria izan den AHTaren proiektua, egoera surrealistan geratu da, 70km eskaseko tarte batera mugatua, hori bai, izugarrizko diru xahuketaren truke. Hori gutxi ez eta **hasitako AHTaren ibilbideko lanak eta gainontzeko prozedura administratibo guztiak ez dute Ingurumen Eraginen Aitorpenik (IEA), erabateko irregulartasun egoeran daude beraz.**

2010. urtean, Sustrai Erakuntza Fundazioak IEAen iraungitze aitortpena eta, ondorioz, hauen balio gabetasuna eskatu zuten formalki bai Sustapen Ministerioari, bai eta Ingurumen Ministerioari ere. Eskaera hauek Ingurumen Ministerioak gaitzetsiak izan zirenez, zegozkien gorako helegiteak aurkeztu ziren ministerio berean.

2011. urte hasieran, Arankoa bulego juridikoko partaide diren Idoia Zulet eta Eduardo Santos abokatuen eskutik, Sustrai Erakuntza Fundazioak helegite bat jarri zuen Madrilgo Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salan, proiektuaren artxibatzea eskatzeko, 2004ean onartuak izan ziren IEAen balio ezagatik (2004ko maiatzaren 14ko BOEa, 117. zenb.).

Publikoki salatutako egoera horri Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazioen Departamentuak ez entzunarena egin eta 2011ko maiatzaren 3an Nafarroako AHTaren IEAk indarrean zeudela justifikatu nahian ohar bat publiko egin zuen.

Ondoren, 2011ko irailean, Sustrai Erakuntza Fundazioak kide batzuk **Nafar Parlamentuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen** aurrean agertu ziren. Aurkezpen hartan IEAk iraungitak eta indargabetuak zirela jakinarazi zitzaizkien berriz ere.

2012. urte hasieran, Sustrai Erakuntza Fundazioak kide batzuk orduko Sustapen Kontseilariarekin elkartu ziren, orain arte aipaturiko guztia berriz ere aipatu zitzaizkion.

Bukatzeko, Sustrai Erakuntza Fundazioak, AHTaren lanak hasi baino lehen, hauek 2011ko udan hasiko balira, egoera juridiko irregularrean abiatuko liratekeela adierazi zuen publikoki, **Nafarroako historian egin den proiektu handienaren gauzatzea irregular bihurtuz.**

Beraz, lanak hastekotan, hauen **egoera legez ahula eta zalantzazkoa** litzatekeela. Arduragabe, lanak denbora baino lehen hasteagatik, **banka pribatuari interesengatik ordaindu** beharreko milioiak ahaztu gabe.

Guzti honen harira, hau da Sustrai Erakuntza Fundazioak nafar jendarteari adierazi nahi diona; bere garaian Ministerioa eta Nafar Gobernuak zuzenean **informatuak** izan ziren guztiaz, egoera irregular eta legez kanpoko horri beharrezko **irtenbidea** eman ziezaioten, epaitegietara jo behar izan gabe bideratu zedin. Bistan denez ez zuten egoera irregularrik zuzendu. Gure jakinarazpenak foru kutxari alferrikako **gastu ekonomikoak galarazteko** egin genituen, nafar guztion diruaren xahutzea galarazteko.

2013. urte honen hasieran, Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salako lehen sekzioa kompetentziaz kanpo aitortu zen eta jarduera Madrilgo Justizia Epaitegi Gorenera igorri zuen. Epaimahai



horrek alde biei bidali dien ebazpenak ondokoa dio literalki: *“Por lo tanto las consecuencias de la caducidad de la DIA son la nueva realización desde el principio del procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental, dado que no se puede ejecutar una obra de esta envergadura sin Declaración de Impacto Ambiental válidamente emitida”*, hau da, ebazpen honek ondorioztatzen duenez Nafarroako Abiadura Handiko Korridorearen proiektuak denboran salto egiten du eta 2004ean kokatzen da, IEAk onartu aurrekoan, orduetik onartu eta eginiko guztia irregular bihurtuz.

Aurretik azaldutako guztiaren larritasuna ikusirik, eta Nafar Gobernuak errespetatu eta bete beharko duen epaia esku artean izanik, begibistako **ondorioak bi dira:**

**1. Nafar Gobernuak beharrezkoa den legezko babesik gabe geratu da eta aurrera daramazkien lan eta prozedura administratiboak egoera irregularrean geratu direnez, Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren lanen eta proiektuaren berealako gelditzea beharrezkoa da.**

**2. Nafar Gobernuak Castejón eta Iruñerria arteko Abiadura Handiko Korridorearen proiektuaren inguruan egindako kudeaketa negargarriaren ardura politikoa duen Luis Zarraluqui, Sustapen Kontseilariaren dimisioa beharrezkotzat jotzen dugu, gutxienez.**

Honekin, Sustrai Erakuntza Fundazioak, berez **jada zalantza handiko onura ekonomikoak omen dituen eta ingurumenean, lurraldean eta energia alorrean kalte handiak sortuko dituen proiektu** honen tramitatzean ematen ari diren lege hauste garrantzitsuetako baten berri eman nahi dio.

Sustrai Erakuntza Fundazioak bere lanarekin jarraituko du, hau da, jendarte eredu orekatu eta sostengarri baten aldeko eta ingurumenaren aldeko jendarte sare zabal baten eraikuntzan. Sare horrekin bat egiten interesatua dagoen orok, web horri honen bitartez egin dezake: <http://www.sustraiarakuntza.org/>

Bukatzeko, beste jendarte eredu bat lortu nahian saiakera pertsonalean diharduten nafar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta mendeetan zehar aberastutako eta gure arbasoengandik jasotako lurralde eta ingurumenaren bidezko jabe izaten jarrai dezagun lanean jarraitzera animatu nahi ditugu.

### Sustrai Erakuntza Fundazioa

Telefonoa (gazteleraz): 622 18 19 69

Telefonoa (euskaraz): 659 74 57 49

Web orria: <http://www.fundacionsustrai.org/> eta <http://www.sustraiarakuntza.org/>

Helbide elektronikoa: [sustrai@fundacionsustrai.org](mailto:sustrai@fundacionsustrai.org)